### *Informazio orokorra.*

Zalduondo aspaldidanik bidegurutze batean egon da kokatua, eta honek Santiago bideko erromesentzat, merkatarientzat zein mandazainentzat pasabide garrantzitsua izatea ekarri du. Bidaiarien mugimendu honekin sortzen zen aberastasunak Arabako familia handiak erakarri zituen, zonaldean kokatu ziren eta gaur egun udalerrian ikusten ditugun jauregiak eraiki zituzten.

# ZALDUONDOKO MUSEO ETNOGRAFIKOA



MUSEO ETNOGRAFIKOA

Zalduondoko Museo Etnografikoak eskualdeko hainbat mendeetako etnologiaren, folklorearen eta artearen historia erakusten digu. Bilduma hartzen duen jauregi bera artelan interesgarria da. Bertako XVI. mendeko margolanak aipatzekoak dira. Aipamen berezia merezi du Arabako inauteri tradizionalei eskainitako eremu berezia, bertan jai hauetan parte hartzen duten pertsonaiak ikusi ahal izango ditugularik.

### *Iradokizunak.*

ZALDUONDOKO INAUTERIAK

1975ean Zalduondoko inauteri tradizionala berreskuratu zen 41 urte luze eta gero. Jai honetako protagonista Markitos da, epaitua izaten den hiriko jauntxo bat irudikatzen duen trajedun panpina. Epaia bitartean urte osoko zoritxarren erantzule egiten zaio. Herritik ibilbide bat egin eta gero, zutoin batean sartzen da eta sua ematen zaio. Inauteri hauek Arabako interesgarrienetakoak dira etnografia ikuspegitik.

---

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

alava turismo eus · EUSKADI BASQUE COUNTRY · ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA / CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA · lautur lautadako turismoa

ERDI AROKO ARABA · ÁLAVA MEDIEVAL

*Zalduondoko Museo Etnografikoa:*
*945 304 393*

*Arabako Lautada Eskualdeko Turismo Bulegoa:*
*945 302 931*






# LAZARRAGATARREN

JAUREGIA - AMETZAGA



Lazarraga familia jaurerria Oñatin zeukan Gebara familia boteretsuaren mendekoa zen. Hauen aldetik tratu mesedegarria jaso zuten eta horri esker kokapen estrategikoa zuten lekuetan kokatu ziren, Zalduondo kasu. Esan bezala, Zalduondo merkataritza bidegurutzean kokaturik zegoen, eta Lazarragatarrek honen kontrola zeukaten. Familia honek hainbat eraikuntza sustatu zituen udalerrian, esaterako, eliza, bertan kapera propioa zutelarik, gaur egun kontserbatzen dena. Elizaren ondoan dagoen jauregi errenazentista ere haiek eraiki zuten. XVI. mendeko eraikin zibil honen fatxadan Lazarraga-Lezeatarren armarri handi bat zizelkatu zuten, hura sostengatzen duten bi gudariz inguraturik. Jauregiaren estiloa eklektikoa da, eta eragin italiarra, gaztelarra eta mudejarra nabaria da, baita barrokoaren aurrekari batzuk ere.







ZALDUONDOKO

# MUSEO ETNOGRAFIKOA

Zalduondoko Museo Etnografikoan zonaldeko bizilagunen orduko bizimodua ezagutu dezakegu, lanarekin eta eguneroko bizimoduarekin lotura duten hainbat objektu ezagututa. Horrez gain, artisautza bilduma interesgarria ikus dezakegu, historikoa zein gaur egungoa, baita bertako Blas Arratibel artisauaren lanak ere.

Museoko erakusketa bitxienetako eta deigarrienetako bat Arabako inauterien ingurukoa da, ospakizun herrikoiak, zeinetan hainbat pertsonai herriko kaleetara ateratzen diren aurreko urteko gaitz guztiak uxatzeko asmoz. Zalduondoko kasuan, pertsonaia nagusia Markitos da, erakusketa honetan ikus daitekeena, Porreteroarekin, Salcedoren pertsonaiarekin, Kanpetzuko Toribiorekin, Atsoarekin, Hartzarekin, galdaragileekin, porreroekin, kartziruloekin eta abarrekoekin batera.






## BISITA GIDATUEN ORDUTEGIA:

*Taldeentzako bisitak aldez aurretik adostu daitezke telefono honetara deituz:*
*945 30 43 93*

**MUSEO ETNOGRAFIKOA:**
*Igandeetan 11:30etatik 13:30etara*
*945 304 393*